

## **Foru Lege proposamena, zerga batzuetan behin-behinekoz errekaraguak ezartzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Covid-19aren pandemiak gogor jo gaitu. Pandemiaren ondoriozko premia sozial eta ekonomiko itzelek baliabide publiko eta pribatuen kantitate erraldoiak mobilizatzen behartzen dute, noiz eta zerga bitartezko diru-sarrerek sekula ez bezalako beherakada pairatuko duten garai batean. Gastu-premiak ez datoz bat aurreikusten diren diru-sarrera arruntekin.

Alegia, diru-bilketak beherakada latza nozituko duen une batean, ordainkizunak oso izanen dira mardulak. Zutitu eta norabide egokian ibiltzeari ekiteak baliabide ekonomiko asko eskatzen du, haien urritasuna denean nagusi.

Egoera horrek Nafarroako administrazio publikoak eraman behar ditu jardunlehentasunak eta baliabide-esleipena birpentsatzera eta horiek aberastasuna sortzearen eta gizarte-desorekak murriztearen printzipioetan ardaztera, erabakitasunez. Horrekin batera, ezohiko diru-iturriak abiarazi beharra dago, eta orain arte erabili gabekoak diren finantzabideak apailatu.

Eta funtsezko galderetako bat da ea nola ordaintzekoa den faktura. Krisi honek lan eta ahalegin kolektiboa eskatzen du, eta elkertasunez eta ardurakidetasunez heldu behar zaio. Gehiago ordaintzen dute gehiago daukatenek, piramidearen erpinetik hasita. Eta, zer esanik ez, krisiari heldu behar zaio zorrozatasuna, efizientzia eta eraginkortasuna harturik baliabide publikoen kudeaketaren goiburutzat.

Epe-kudeaketa eta erreakzio-ahalmena funts-funtsezkoak dira. Orain egin beharra dagoena ezin da gero egin. Orain denborarik galduz gero, ezin izanen da gero berreskuratu.

Horregatik, gastuen eta diru-galeraren garai inoiz ez bezalako honetan, COVID-19aren ezohiko tasa ezartzeko Foru Lege proposamen hau aurkezten da, lagungarri gerta dadin nafar erakundeek datozen hilabete eta urteetan ezinbestean

izanen dituzten finantza-premiei erantzuteko. Guztiz pertinentea da zerga-neurri gehigarri eta salbuespenezkoak aplikatzea, uztarturik fiskalitate progresiboago eta ekitatezkoago bati buruz egin beharrekoa den eztabaidari, halatan bermatze aldera premiazkoak ditugun politika publikoak praktikan jartzeko behar beste baliabide edukitzea.

Proposatzen da "COVID-19 tasa" deritzonaren ezarpenarekin ahalmen ekonomiko handieneko pertsona eta enpresei zerga-tasak igotzea, errekaru bidez, aldi baterako, eta hein batean baina garrantzitsua den hein batean, honako zuzeneko zergetan: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga. Lau urteko eperako, salbu eta Sozietateen gaineko Zergan, horretan urtebeterako izatea proposatzen baita.

### **Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, onetsia ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez, aldatzen da, hari xedapen iragankor berri bat gehitzeko, honako testu hau izanen duena:

"Xedapen iragankorra. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bai eta 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako ere, errekaru bat ezarriko da, subjektu pasiboak aplikatzekoak zaizkien karga-tasen igoeran gauzatua, jarraian zehazten den moduan:

A. Errekargua, likidazio-oinarri orokorraren gaineko zerga-tasaren igoeran gauzatua, honakoaren arabera:

| <b>Likidazio-oinarri orokorra</b>          | <b>Karga-tasaren igoera</b>          |
|--|--------------------------------------|
| 46.919,99 euro bitarte                     | Errekargua aplikatuzetik salbuetsita |
| 46.920 eurotik 61.199,99 eurora bitarte:   | % 1                                  |
| 61.200 eurotik 81.599,99 eurora bitarte:   | % 2                                  |
| 81.600 eurotik 127.499,99 eurora bitarte:  | % 3                                  |
| 127.500 eurotik 178.499,99 eurora bitarte: | % 4                                  |

|  |     |
|--|-----|
| 178.500 eurotik 305.999,99 eurora bitarte: | % 5 |
| 306.000 eurotik aurrera                    | % 6 |

B. Errekargua, aurrezkiaren likidazio-oinarriaren gaineko zerga-tasaren igoeran gauzatua, honakoaren arabera, xedetzat harturik oinarri bakarreranzko aurrerapausoak ematea:

| Aurrezkiaren likidazio-oinarria          | Karga-tasaren igoera                |
|--|-------------------------------------|
| 5.999 euro bitarte                       | Errekargua aplikatzetik salbuetsita |
| 6.000 eurotik 9.999,00 eurora bitarte:   | % 2                                 |
| 10.000 eurotik 14.999,00 eurora bitarte: | % 4                                 |
| 15.000 eurotik aurrera:                  | % 6                                 |

### **Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea aldatzen da, xedapen gehigarri berri bat eranstearen, testu hau izanen duena:

"Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra.

Subjektu pasiboek 51. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letretan eta 3. apartatuko a) eta b) letretan ezarrita dauden karga-tasak aplikatzen zaizkielarik % 10 baino gehiagoko kontabilitate-mozkinak izan badituzte 2020an aurreko ekitaldiarekin alderatuta, honako igoerak aplikatuko zaizkie tasan:

| Aurreko ekitaldiko kontabilitate-mozkina | Zerga-tasaren igoera     |
|--|--------------------------|
| % 10 baino gutxiagokoa                   | Errekargutik salbuetsita |
| % 10etik % 15era bitarte                 | % 1                      |
| % 16tik % 20ra bitarte                   | % 1,5                    |
| % 20 baino gehiagokoa                    | % 2                      |

### **Hirugarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea**

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatzen dira, eta aurrerantzean testu hau izanen dute:

**Bat.** 6. artikulua, 8. apartatua. Ezabatu egiten da, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

**Bi.** 31. artikulua, 1. apartatua, kuota osoaren muga, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin:

1. Zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren batura ez da izaten ahal azken horren zerga-oinarriaren zenbatekoaren 100eko 85 baino gehiagokoa. Ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko beren izaeragatik edo xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergapeko etekinak sortzeko modukoak ez diren ondare-elementuei dagokien kuota-zatia.

**Hiru.** 31. artikulua. Kuota osoaren muga, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

1. Zerga honen kuota osoaren eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoaren batura ez da izaten ahal azken horren zerga-oinarriaren zenbatekoaren 100eko 65 baino gehiagokoa. Ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko beren izaeragatik edo xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergapeko etekinak sortzeko modukoak ez diren ondare-elementuei dagokien kuota-zatia.

Halaber, ez da kontuan hartuko aurrezkiari dagokion zerga-oinarri bereziaren zatia, ondare-gehikuntzen eta -urritzeen ondoriozkoa, dagokionean ondare-elementuen eskualdatzeengatik edo haietan eginiko hobekuntzengatik suertaturikoen saldo positiboari, elementu edo hobekuntza horiek eskualdatze-datatik urtebete baino gehiagoko aurre-denboraz eskuratuak izanik. Era berean, ez da kontuan hartuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoan aurrezkiaren zerga-oinarri bereziari dagokion zatia ere.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako zerga-oinarriaren aurrezkiari dagokion zati bereziari gehituko zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko

abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen hogeita seigarren xedapen iragankorreko 6. zenbakiko a) letrak aipatzen dituen dibidenduen eta mozkin-partaidetzen zenbatekoa.

2. Bi kuoten baturak 1. apartatuan aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga honen kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte. Gutxitze horrek ezin izanen du ehuneko 65 gainditu.

3. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 71. artikuluan aipatzen diren familia-unitateen kasuan, aurreko zenbakietan zehaztutako mugak banaka kalkulatu dira, alde batera utzita zer zerga-ordaintze mota, banakakoa edo baterakoa, aukeratu den pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

4. Artikulu honetan xedaturikoa ez zaie aplikatuko 6. artikuluko 3. zenbakiak aipatzen dituen subjektu pasiboari.

**Lau.** 33. artikulua. Kuotako kenkariak. 1. apartatua. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

1. Zergaren kuotatik kenduko da ondoko letretan jasotzen diren ondasun eta eskubideen balioari kuotan dagokion zati proportzionalaren ehuneko 100, ondasun eta eskubide horien gehieneko balioa 1.000.000 euro bitartekoa denean, eta balio horren gaindikinari dagokion zati proportzionalaren ehuneko 80.

Hauek dira kenkari honetarako eskubidea ematen duten ondasun eta eskubideak:

a) Subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideak eta bi ezkontideen ondasun eta eskubide komunak, enpresa- edo lanbide-jarduera egiteko beharrezkoak direnak, betiere jarduera hori subjektu pasiboak ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean gauzatzen badu eta errenta-iturri nagusia baldin bada jarduera gauzatzen duenarentzat.

Errenta-iturri nagusia zein den determinatzeko, ez dira kontuan hartuko zenbaki honetako b) letrak aipatzen dituen entitateetan burutzen diren

zuzendaritza-eginkizunen ordainsariak, ezta aipatu entitateetan parte hartzetik heldutako beste edozein ordainsari ere.

b) Merkatu antolatuetan kotizatuak nahiz kotizatugabeak diren entitateetako partaidetzen jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufuktu eskubidea, baldintza hauek guztiak betez gero:

Lehen. Entitateak, sozietatea izan nahiz ez izan, enpresa- nahiz lanbide-jardueraren bat egiazki egitea eta jarduera nagusitzat ez edukitzea ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Ulertuko da entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela eta, horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat ez duela egiten, ondoko baldintzetako edozein gertatzen denean ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan:

a') Haren aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea.

b') Haren aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea enpresa- edo lanbide-jarduerei atxikita.

Argitzeko ea enpresa- edo lanbide-jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati atxikita ote dagoen, betiere b) letra honetan adierazitako ondorioetarako, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan xedatutakoari segituko zaio.

Bai aktiboaren balioa, bai enpresa- edo lanbide-jarduerei atxikita ez dauden ondare-elementuena, kontabilitatetik ondorioztatuak izanen dira, baldin eta kontabilitateak entitatearen benetako ondare-egoera zintzoki jasotzen badu.

Atxikita ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktibo-partea zehazterakoan:

1. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

– Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitakoak.

– Enpresa- edo lanbide-jarduerak egitearen ondorioz ezarririko kontratu-harremanetatik sorturiko kreditu-eskubideak biltzen dituztenak.

- Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

- Gutxienez ere boto-eskubideen ehuneko 5 ematen dutenak, baldin eta, partaidetzaren zuzendaritza eta kudeaketarako edukitakoak izateaz gain, horretarako antolaturiko baliabide materialak eta langileak edukitzen badira eta parte hartutako entitatea letra honetan jasota ez badago.

2. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta enpresa- edo lanbide-jarduerei atxikita ez dauden elementu gisa ere, haien erosketa-prezioak ez badu gainditzen entitateak lortu dituen mozkin ez banatuen zenbatekoa, mozkin horiek enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzearen ondoriozkoak izanez gero. Muga gisa hartuko da urte horretan berean eta azken hamar urteetan zehar lorturiko mozkinen batura.

Ondorio horietarako, aurreko paragrafoko azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako mozkinen parekotzat hartuko dira, baldin eta parte hartua den entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jardueretan aritzetik heldu badira.

Bigarrena. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza 100eko 5koa izatea gutxienez, banaka zenbatua, edo 100eko 20koa, ezkontideak edo aurreko, ondorengo edo bigarren graduko albo-ahaideek dutenarekin batera zenbatuz gero, berdin delarik ahaidetasuna odolkidetasunaren, ezkontzaren edo adopzioaren ondoriozkoa izatea.

Hirugarrena. Subjektu pasiboak egiazki betetzea zuzendaritza-eginkizunak entitatean, eta horren truke jasotzen duen ordainsaria handiagoa izatea enpresanahiz lanbide-jardueren eta lan pertsonalaren ondoriozko etekin guztien 100eko 50 baino.

Aurreko kalkulua egiteko, 1. zenbaki honetako a) letrak aipatzen duen enpresa-jardueraren etekinak ez dira zenbatuko enpresanahiz lanbide-jardueren eta lan pertsonalaren ondoriozko etekin gisa.

Entitateko partaidetza aurreko baldintzan aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, zuzendaritza-eginkizunak eta haien ondoriozko ordainsariak ahaideen taldeko pertsona batek bederen izan beharko ditu, deusetan galarazi gabe kenkarirako eskubidea haiek guztiek izatea.

Kenkaria ez da partaidetzen balioaz harago iritsiko –balio hori 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da–; hain zuzen, proportzio honi dagokion zatian: enpresa- edo lanbide-jarduera burutzeko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorren zenbatekoa kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa. Arau horiexek aplikatuko dira parte hartuak diren entitateetako partaidetzen balorazioan, entitate horien edukitzaile den entitatearen partaidetzen balioa zehazteko.

2. Erregelamenduz ezarri ahalko dira:

a) Enpresa-jarduera bat garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagokien kenkaria aplikatu ahal izateko betebeharrak.

**Bost.** 2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako, milioi bat euro baino gehiagoko likidazio-oinarrientzat errekaru bat ezartzen da 30. artikuluan jasotako karga-tasen gainean, halako moldez non amaierako zerga-tasak % 1,25etik % 3ra bitarteko alderaino iritsiko baitira.

### **Laugarren artikulua. Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Legea**

Aldatu egiten da Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko xedapenen testu bategina, onetsia abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez, hari xedapen iragankor berri bat gehitzeko, honako testu hau izanen duena:

"Xedapen iragankorra. 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bai eta 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako ere, errekaru bat ezarriko da 34.1 artikuluan arauturiko karga-tasan, subjektu pasiboei aplikatzekoak zaizkien zerga-tasen igoeran gauzatua, jarraian zehazten den moduan:



A. Errekargua, likidazio-oinarri orokorraren gaineko zerga-tasaren igoeran gauzatua, honakoaren arabera:

| Apartatua             | Zerga-tasaren igoera                          |
|-----------------------|---|
| a) Lehena             | % 0,1   |
| a) Bigarrena          | % 0,1   |
| a) Hirugarrena        | Likidazio-oinarriaren tarte bakoitzean % 1.   |
| a) Laugarrena         | Likidazio-oinarriaren tarte bakoitzean % 0,5. |
| c), d), e), f) eta g) | Likidazio-oinarriaren tarte bakoitzean % 1.   |

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.